



## PRENTSA-OHARRA



Ana G. Lartitegui artista; Gonzalo Olabarria, Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza zinegotzia; eta Fernando Pérez, Azkuna Zentroko zuzendaria, *Tentelontzia* erakusketan

### **Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaok Ana G. Lartitegui artista bilbotarraren *Tentelontzia* erakusketa aurkeztu du**

- Erakusketako 18 ilustrazioak Errenazimentuko pintura flamenkoaren tradizio satirikoarekin lotzen duen istorio baten kontakizun grafikoa dira
- *Tentelontzia* Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoko Mediateka Galerian egongo da ikusgai 2024ko irailaren 29ra arte
- Liburua eta proiektuko ilustrazio batzuk dendAZ, Azkuna Zentroko dendan, salgai egongo dira



**TENTELONTZIA  
Ana G. Lartitegui**

**Noiz:** 2024ko ekainaren 26tik irailaren 29ra  
**Non:** Mediateka Galeria

Informazio gehiago [prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus) edo +34 648 77 33 73  
telefonoan

Bilbo, 2024ko ekainaren 26an.- Asteazken honetan Ana G. Lartitegui *Tentelontzia*. *Ipuin-zeharkaldi bat Flandriako pinturarekin harremanean* aurkeztu du. Artista bilbotarraren erakusketa hau Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbao, Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroko Galeria Mediatekan bisitatu ahal izango da 2024ko irailaren 29ra arte.

Bertan, artista bilbotarrak bere azken libururako -gaztelaniaz, euskaraz, katalanez eta galegoz argitaratua izan den *La nave de los necios*- sortutako akuarela originalak biltzen dira. Aurkezpenean Gonzalo Olabarria Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza zinegotziak, Fernando Pérez Azkuna Zentroko zuzendariak eta Ana G. Lartitegui artistak parte hartu dute.

Ilustrazio-liburua erakusketa bihurtzen duen proiektu honetan, Ana G. Lartitegui literaturara hurbiltzeko modu berri bat proposatzen du. Zentzu honetan, erakusketako 18 ilustrazioak Errenazimentuko pintura flamenkoaren tradizio satirikoarekin lotzen duen istorio baten kontakizun grafikoa dira, eta haur eta gazteak pintura-maisu handiekin lotzen ditu, hala nola El Bosco, Brueghel Zaharra edo Patinir eta Flandriako beste maisu batzuen obretako eszena satirikoak eta kostunbristak aipatuz, giza ergelkeriaren gehiegikeriak islatu nahian.

Liburuak ergelen hiri batean bizi eta asko aspertzen den “mutil bizkor” baten istorioa kontatzen du. Asperdura hori gainditzeko, erabakitzen du auzokoari txantxa bat egitea. Hortik aurrera, gertaerak kateatu egiten dira bidaiari eldarniotsu eta gorabeheratsu bat sortuz eta era askotako pertsonaiak tartean sartuz. Azkenean, modu harrigarri eta ustekabeko batean, gertaeren ardura hasieran sortu zituen pertsonari egokituko zaio.

Gainera, *Tentelontzia* izenburuko liburua eta proiektu honekin batera doazen ilustrazio batzuk dendAZenegongo dira eskuragarri, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren espazioa, artistak beren ingurunean ikusgai jartzeko, haien lana sustatzeko eta harreman berriak finkatzeko proiektua.



Ana G. Lartiteguiren *Tentelontzia* erakusketaren irudi bat

### Ana G. Lartitegui

Ana G. Lartitegui 1989an argitaratu zuen lehen obra. Orduetik, haurrentzako liburuak egiten aritzen da ilustratzaile eta ikertzaile gisa. Artikuluak idatzi, hitzaldiak eman, erakusketak komisariatu ditu... Círculo Hexágono ikerketa-taldea eta haren saiakera laburren bilduma koordinatzen ditu. Eta batzuetan, fikzioa ere idazten du, hala nola *La nave de los necios* (A fin de cuentos, 2023) lanean.

### Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak

---

[prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)

Tels. +34 648 773 373